

# 3

## Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena).

Iñaki Martinez de Luna

(@imartinezdeluna), soziolinguista eta Topalabeako kidea, Euskaltzaleen Topagunea  
i.martinezdeluna@outlook.com

**Laburpena.** Euskararen ezagutza ari da gizartean gero eta gehiago hedatzen, batez ere gazteen artean. Baina berriki euskaldundu diren asko ez dute ingurune euskaldunik beren egunerokoan eta ez dira euskararen hiztun komunitateko kide sentitzen ere. Gabezia horien iturburua euskaldun horiek izandako hizkuntza-sozializazioa da, zeinak euskararen mundua ulertzeko eta interpretatzeko transmititu dituen edukietan ez da agertzen hizkuntza horrekiko interes eta atxikimendurik. Hortik dator diskurtso berri eta koherentea ehuntzeko eta zabaltzeko premia. Jarraian, eginkizun horretarako baliotsu izan daitezkeen zenbait puntu proposatzen dira. • **Hitz gakoak:** Euskara, diskurtso, hizkuntza-sozializazio, hizkuntza-komunitate, bizikidetzaren, identitate, berdintasun, aniztasun, erantzukizun, justizia, errespetu, hizkuntza-merkatu, irudi..

**Abstract.** Knowledge of Basque is becoming progressively more widespread in society, particularly among young people. But many who have recently learnt Basque are not immersed in a Basque-speaking environment in their day-to-day life and do not feel like members of the Basque-speaking community. These issues are the result of the language socialization of the speakers in question, which does not include interest and loyalty towards the Basque language as concepts for comprehending and interpreting the world of Basque. Hence the need to build and disseminate a new, coherent discourse. This article offers some pointers which may prove helpful in this regard. • **Key words:** Basque language, discourse, language socialization, language community, peaceful coexistence, identity, equality, diversity, responsibility, justice, respect, language market, image.

## ABIAPUNTUA

### I

Zergatik *Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri* izenburua?

Mundua modu desberdinetan irudika eta interpreta daiteke. Bestela esanda, errealitatearen gainean diskurtso desberdinak osa daitezke: diskurtso neoliberala, globalizazioaren aurkako diskurtsoa, diskurtso arrazista, diskurtso feminista, etab. Hizkuntza-diskurtsoak ere ezberdinak eta kontrajarriak izan daitezke.

Hizkuntzak ulertzeko eta irudikatzen ditugun diskurtsoek eragingo dute hizkuntza horien gaineko interesean zein jarretan; baita erabileran ere. Horregatik da hain garrantzitsua euskarari buruz gizartean dauden diskurtsoak egokiak izatea, horrela izango baita posible hizkuntza horrekiko babes sendotu eta zabaltzea.

Aurkezpen honen oinarrian dagoen abiapuntua bikoitza da. Batetik, susmoa dugu euskararen alde dagoen diskurtso mota ez dela erabat egokitzen gure gizarteak egun dituen baldintzetara; horren ondorioz, zailtasunak daude euskaltzetasuna gizarte osora hedatzeko. Bestetik, gero eta euskaldun gehiago dira euskararen komunitatetik at bizi direnak; horiek, batez ere erdal giroan sozializatuak izanik, ez dute euskararekiko aldeotasun handirik sentitzen eta zaila zaie euskaraz bizitzeko ahaleginik egitea. Kasu horietan, eraginkorra izan liteke euskararen inguruko ikuspegi edo diskurtso berri eta adeitsua garatzea.

## GAITASUNA VERSUS KOMUNITATEA

### I

Euskarazko gaitasuna asko ari da hedatzen azken urteotan: 1991. urtean 529 mila euskaldun zeuden Euskal Herrian eta 2011n, aldiz, 714 mila (Eusko Jaurlaritza 2013: 20). EAERI soilik erreparatuz, nabarmena da gatzetxoaren artean gaitasunak izan duen bilakaera: 10-14 adin-taldeko neska-mutilengan euskaldunen proportzioa %19,4ko zen 1981ean, eta hogeita hamar urte beranduago (2011n) %84raino igo da (Eusko Jaurlaritza 2014: 30); adin-tarte gazteenetan, beraz, gehiengoa euskalduna da.

Erabilera ere igo da gazteen artean, baina ez gaitasuna beste: Euskal Herriko 16-24 urte bitarteko gazteen erabilera %11,1etik %20,2ra pasa da hogeita urteko epean. Hortaz, gaitasuna eta erabileraren arteko zuloa 1991n 11,4 puntukoa izatetik 26,6 puntukoa izatera pasa da 2011n.

Gehiengoa izanik ere, egungo euskaldunak elebidunak edo eleanitzak dira eta, hortaz, lasai asko bizi daitezke beste hizkuntza batetan. Askok,

**Batetik, susmoa dugu euskararen alde dagoen diskurtso mota ez dela erabat egokitzen gure gizarteak egun dituen baldintzetara; horren ondorioz, zailtasunak daude euskaltzetasuna gizarte osora hedatzeko. Bestetik, gero eta euskaldun gehiago dira euskararen komunitatetik at bizi direnak.**

*Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). – Iñaki Martínez de Luna*

**Askok, euskaraz jakinda ere, erdal komunitatean dihardute eta horren kide sentitzen dira. Kasu horietan, zalantza jarri daiteke hizkuntzaren ezagutzak talde-identitatea bermatuko ote duen.**

euskaraz jakinda ere, erdal komunitatean dihardute eta horren kide sentitzen dira; ez euskararen komunitatekoak. Kasu horietan, zalantza jarri daiteke hizkuntzaren ezagutzak talde-identitatea bermatuko ote duen:

...le fait de parler telle ou telle langue suffit-il à faire naître le sentiment d'appartenir à une communauté? (Alén Garabato eta Kis-Marck 2015)

Alegia, euskaraz jakin eta noizbehinka erabili arren, ez dago zertan hizkuntza-komunitate horretako kide sentitu. Litekeena da egunerokoa gehienbat baliatzen den hizkuntzaren komunitatearekin identifikatzea, eta komunitateko kide izatearen kontzientziak pisu handia du hizkuntza-komunitatea osatzerakoan:

La conscience d'appartenance de ses membres nous semble constituer un critère essentiel pour définir ce que peut être une <communauté linguistique>. (Alén Garabato eta Kis-Marck 2015)

Euskaldundu diren gazte horietako askok, euskararen komunitateko kide sentitu ezean, ez dituzte partekatuko komunitate horretako bizi-pozak; ezta kezkek ere. Oso zaila izango zaie hiztun horiei hizkuntza horren alde ezertxo ere egitea. Izan ere, parte hartzen dugun komunitateak asko markatzen gaitu. Norberaren identitatea komunitate batean garatu eta osatzen da; alegia, identitate sozial baten barruan. Neurri handian, beraz, bakoitzak bere komunitatearen arabera ulertzen du mundua, hizkuntzak barne. Anthony Giddens-ek gizarte identitate-ek ezartzen dizkiguten baldintzak azpimarratzen ditu:

...las <identidades sociales> (...) van asociadas a derechos, obligaciones y sanciones de carácter normativo que, dentro de unas colectividades específicas, conforman roles determinados. (Giddens 1995 [1984]: 282-283)

Beraz, identitate sozialak hizkuntza-arau batzuk ezarriko dizkigu, eta gure portaera horien arabera izango da saritua edo zigortua. Horregatik, euskarazko gaitasun nahikoa izan arren, batzuek hizkuntza horren inguruan partekatzen dituzten ikuspegia eta balorazioa arrotzak izango dira; erdal komunitateak garatu dituenak, ez euskal hiztunen dituzten berberak. Gauzak horrela, zaila izango zaie erdaraz bizi diren euskaldun horiei euskara komunitatearen kezkek ezertan hartzea.

Horregatik da, hain zuzen ere, garrantzitsua euskararentzat diskurtso mota egokiak lehenik garatzea eta, ondoren, gizartean zabaltzea. Hala-ko diskurtsoen laguntzaz berriki euskaldundu direnak biltzea erraza-ko eginez, euskararen komunitatea trinkotzeko eta hedatzeko aukerak

handituko dira. Areago, bilatu behar da herritar gehienok, euskaldunek zein erdaldunek, geure burua diskurtso berrietan islatuta ikusi eta eroso sentitzea.

## DISKURTSOAREN FUNTZIOA

### I

Xabier Erizeren eskutik jaso dugu Norman Fairclough-ek *diskurtso* kontzeptuaz emandako adiera zabala (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 18-19). Horren arabera, diskurtsoa “*mundua irudikatzeko eta baloratzeko modu bat*” da (Fairclough 2003: 124). Bestalde, diskurtsoak hiru dimentsio nagusi dituela idatzi du van Dijk-ek: a) Testua edo hitza; b) Uste, iritzi edo ideologiaren komunikazioa; c) Interakzio soziala. (van Dijk 2000b: 23)

Bete beharreko bigarren dimentsioko horri erreparatuz, diskurtsoaren zeregina ez da errealitatea egiazki islatzea, baizik eta errealitateari buruzko usteak gidatzea (van Dijk 2000a: 55). Diskurtsoa horrela uler-tuta, argiago agertzen zaizkigu errealitatearen eta diskurtsoaren artean batzuetan gertatzen den arrakala zein diskurtsoaren setakeria, Erizek gogorarazi digunez: “*Cuando un marco [discursivo] no encaja con los hechos, sus seguidores ignorarán los hechos y el marco seguirá funcionando.*” (Lakoff 2007, in Euskararen Aholku Batzordea 2016: 20)

Esan dugunez, hirugarren dimentsioari dagokionez, diskurtsoekin eraginkortasun soziala bilatzen da; Pierre Bourdieu-k diskurtsoaren “eraginkortasun performatiboa” deitu zuena (Bourdieu 1985: 90). Diskurtsoen sortzaileek, hitza erabiliz, munduaren kognizio edo ikuskera jakin batzuk komunikatzea eta interakzio sozialean haien nagusitasuna ezartzea bilatzen dituzte; alegia, errealitate soziala sortzea zein aldaraztea. (Martínez de Luna 2013: 17)

Diskurtsoaren garrantzia ongi islatzen duen adibide historikoa XI. eta XIII. mendeetako Gurutzadana da. Kanpaina militar horiek antolatuta ziren musulmanei Lur Santuak kentzeko. Horietan, interes ekonomikoak, botere egarria, sinesmen erlijiosoak eta, seguru asko, beste zenbait interes aitortezin asebetetzeko dinamika oldarkorra abian jarri zen. Horretarako, ezinbestekoa zen gizartea asmoaren bueltan biltzea, lehendabizi konbentzitzen eta ondoren mobilizatuz. Interes mota hain ezberdin horiek inork zalantzan jarriko ez zuen lelo batean bildu zituen Jaungoikoaren ordezkari lurtar hutsezinak, Urbano II. Aita Santuak: “*Jainkoak nahi du! oihuarekin lehen gurutzada deitu zuen.*” (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Gurutzadak> [azken kontsulta: 2015-12-26]). Ez zegoen lelo hori zalantzan jartzetik.

**Diskurtso sendo,  
erakargarri eta  
gizarteko eremu  
zabalak ahalik  
eta zabalenak  
biltzeko gai dena  
sortuz gero,  
euskarari asko  
erraztuko zaio  
etorkizuna.  
Neurri batean,  
nolako baldintza  
eta diskurtsoa  
komunitatean,  
halako portaera  
hiztunek.**

Erdi Aroko diskurtsoaren erabilera mota hori etengabe errepikatu da historian, gaian garaiko bertsioan. Gaur egun ere horrela da. Joseba Sarrionandiak dakartzkigu Irakeko edo Libiako adibideak, non, gerra zuritzea xede, diskurtsoaren erabilera aipagarria izan den. Bere ustez, iraultza teknologikoarekin batera iritzi publikoa bereganatzeko komunikazioak nagusitu beharko zuen “*kanoiontzien diplomaziaren orde, apurka-apurka, komunikazio sareen diplomazia nagusituko [zen]*”. Baina, ustea ustel suertatu da:

...komunikazio sareen diplomazia hedatu dela, bonbardaketena atertu gabe. Koordinatu egiten dira biak; gerren aurretik, kanpaina handiak izaten dira iritzi publikoa egokitzeo. Medioak eragin geopolitikoko armatza erabiltzen dira, iritzi publikoa sortzeko eta mantentzeko. (Sarrionandia 2015: 90)

Adibide horiek erakusten dute diskurtsoa zein garrantzitsua den iritzi publikoaren aldeotasuna lortzea eta, horregatik, sortzen da euskararentzat *diskurtso multzo koherentea* osatzearen premia. Izan ere, diskurtso sendo, erakargarri eta gizarteko eremu zabalak -ahalik eta zabalenak- biltzeko gai dena sortuz gero, euskarari asko erraztuko zaio etorkizuna. Neurri batean, nolako baldintza eta diskurtsoa komunitatean, halako portaera hiztunek. Horregatik, baldintza objektiboetan eragitea bezain garrantzitsua da diskurtso egoki eta sendoa eraikitzea.

## ZENBAIT ALE DISKURTSO BERRIRAKO

**I** Saio honen izenbururako aukeratu diren zazpi kontzeptuak egokiak izan daitezke euskarak behar duen diskurtso berria eraikitzen hasteko. Litekeena da zazpi kontzeptu horiek nahikoa ez izatea; beharrezkoak bai ordea. Horietatik —gutxienez— abiatuz eraiki beharko da euskararen aldeko aldarrikapena. Goazen, bada, kontzeptu horiek banan-banan jorratzera.

### 1. Identitatea

Has gaitetzen arestian aipatutako komunitate identitatearen gaiarekin. Inor gutxik ukatuko du hizkuntzak erdiguneko kokapena bereganatzen duela norbanakoaren eta gizartearen identitateetan. Iritzi berekoa da Xose Luis Mendez Ferrin idazle galiziarra, *Berriako* kazetari batek jarri zion puntu honetan: “*Komunikazio tresna omen da hizkuntza...*”. Hona hemen idazlearen erantzuna:

Baina ez, soilik, komunikazio tresna. Mundua ikusteko manera ere bada! Komunikazio kodea da hizkuntza, jakina, baina morsea baino gehiago da,

identitate zeinurik behinena da hizkuntza, Galizian eta leku guztietan.” (BERRIA 2015-08-30 / Elustondo)

Onarpen hori islatu nahi izan da *Berrikasi eta Berrikusi* izeneko dokumentuan ere: “*Identitatea. Euskara da euskaldun egiten gaituena.*” (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 10)

Baina, identitate hori klabe idologiko-politikoetan deskodifikatu izan ohi da (nahiz eta azken denbora honetan eskema aldatzen hasia den). Horrek mugatu du euskararen irismen publikoa, eta berdin jarraituz gero ez da erraza izango hizkuntza agertoki politikotik ateratzea:

Euskararen aldeko asmoa da despolitizazioa, hizkuntza bera borroka-lekutik ateratzea. Hizkuntza ez da alderdi baten bandera, jakina, denon altxorra da. Berri ona da, inondik ere, memoria ez duenarentzat eta memoria duenarentzat. (...) Baina, ikusteko dago despolitizazioak aterik zabalduko dion euskarari. Euskararen ehun eta piko urteko historia, ezinbestean, politikoa izan da. (Sarionandia 2010: 396)

Galdera, hauxe da: bada aukerarik euskararen inguruan identitate zabalago eta, agian, partekatuago bat eraikitzeke? Eta, baiezkotan, gure uste edo nahi hori nola bideratuko litzateke? Erantzun bila, lagungarri gerta dakiguke Quebec-eko adibidea. Lurralde horretan, *Larose Commission* izeneko batzordea sortu zen 2000. urtean, Quebec-en hizkuntza frantsesak zuen egoeraz eta aurrera begirako etorkizunaz arduratzeko xedearekin. Batzorde horrek kaleratu zuen txostenak berritasuna ekarri zuen Quebec-eko nazio identitateaz, jatorri etniko ezberdineko herritar guztiei leku bat eskaini nahirik. Gakoa zen frantsesa denontzako hizkuntza dela ulertzea eta ulertaraztea. Alegia, frantsesa lurralde horretan bizi diren guztien elkargune bihurtzea:

The significance of the Commission’s report, published in 2001, (...) lies in the way in which “it squarely places Quebec language policy and planning within the framework of the new civic approach to national identity which seeks to unite Quebecers of all ethnic origins” (Oaks & Warren, 2009: 2), thereby safeguarding the future of French in the province. The report’s title —*Le français, une langue pour tout le monde* (...)— neatly captures the Commission’s viewpoint. (Warren eta Oaks 2011: 7)

Hori ikusita, posible ote euskararen inguruan ere mota horretako plan-teamendurik egitea? Leku batzuetan bai antza, Kike Amonarrizek ematen digun testigantzaren arabera: “*Gasteiz identitate berri bat eraikitzen ari da, eta hor euskarak parte handia du*” (Amonarriz 2015). Pentsatze-

---

**Bada aukerarik euskararen inguruan identitate zabalago eta, agian, partekatuago bat eraikitzeke?**

**Pentsatzekoa da, hortaz, euskara muinean txertatua duen identitate mota berri bat beste hainbat lekutan ere bideragarria litzatekeela.**

**Gure gizartean euskararekiko identifikazioa luze-zabal handikoa izan dadin, bizikidetzari ongi errotua duen komunitate bat beharko da.**

**Berdintasuna ez da denak berdinak izatea, ezta denek iritzi berekoak izatea ere.**

koa da, hortaz, euskara muinean txertatua duen identitate mota berri bat beste hainbat lekutan ere bideragarria litzatekeela.

## 2. Bizikidetzari

Bizikidetzari, bizikidetasuna edo elkarbizitza esan, kontzeptuaren esanahiak, nahi bezala deituta ere, ez du zalantzarako tarte handirik uzten.

Bizikidetzari eta hizkuntza-politikaren neurri batzuk kontrajarri ohi dira gure gizartean, ideologiaren arabera. Horrela, hizkuntza eskakizunak ezartzen direnean, norberaren askatasuna eta erdaldunen eskubideak defenditzeko eta ustezko diskriminazioa eta inposaketa salatuzeko ahotsak altzatzen dira zenbait giro politiko eta sozialetan. Adibidez, euskaldunen eskubideak bermatze aldera zerbitzu publikoa eskaintzen duten lan-postu batzuetan elebiduna izatea ezinbestekoa denean. Ikamika antzu hori gaindituko duen diskurtso baten beharra dago:

Ez baitago “euskararen auzia”, euskal herritarren hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baizik. (Euskararen Aholku Batzordea 2009: 57)

Edozein kasutan, istilu-kutsu orok hainbat herritar uxatu eta euskaratik urrunduko luke. Gure gizartean euskararekiko identifikazioa luze-zabal handikoa izan dadin, bizikidetzari ongi errotua duen komunitate bat beharko da.

## 3. Berdintasuna

Bizikidetzarako ezinbesteko baldintza berdintasunarena da. Hierarkikoki antolatuta dagoen gizarte batean bizikidetzari eskasa legoke; murriztua litzateke eta justiziaz kanpokoak. Baina berdintasuna ez da denak berdinak izatea, ezta denek iritzi berekoak izatea ere:

Normalizazioaren gainean berezkoa eta zilegi da ikuspegi ezberdinak izatea, baliabideak, babesak edo erritmoak direla eta. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 8)

Askotan, ezberdintasunak ez dira bizikidetzarako bideratzen. Komunitatearen interes orokorra baztertuz, alderdien arteko lehia politikoa- ren menpe gelditu ohi dira:

Kontua da ezberdintasun horiek balia daitezkeela, esaterako, konfrontazio politikoan aukera baten mesederako edo beste baten kalterako. Eta kasu honetan ezberdintasunak areagotu egiten dira, sakondu. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 8)

Hizkuntza arloan ezberdinak izanik eta ezberdin pentsatu arren, bada berdintasuna bilatzeko motiboa: “Berdintasuna. Hiztun ezberdinak, esku-bide berdinak.” (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 10) Hizkuntza-jardunean hiztunen arteko abiapuntuetan desoreka handia dagoenez, berdintasuna beste modu batean ulertzea proposatzen du Mikel Irizarrek: “hizkuntza aukerak berdintze aldera eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko” (Gipuzkoako Foru Aldundia 2015: 5).

EAEko biztanleriaren gehiengo zabala guztiz edo nahikoa ados dago bi hizkuntza ofizialen berdintasuna bermatzeko ahaleginekin:

Ahaleginak egin behar dira euskara eta gaztelania maila berean egon daitezen, ez bata bestearen gainetik (%75). (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 71)

Zalantzak dauzkat, ordea, jendea jabetzen ote den berdintasuna bermatzeko ezinbestekoak diren baldintzez. Izan ere, hizkuntza-berdintasuna egi osoa bihur dadin den-denok bi hizkuntza ofizialak jakin beharko genituzke, eta biak gaitasun maila egokian, gainera. Bien lege-estatusak ere maila berekoa beharko lukete izan. Eta abar.

Berdintasuna, beraz, ezin da jarrera estetiko hutsean utzi, edukiz bete behar da eta.

#### 4. Errespetua

Berdintasunarekin batera, elkarrekiko errespetua ere ezinbesteko baldintza da bizikidetzaren bermatzeko: “Errespetuarena. Inork ez inor zapaldu, bakoitzak berea.” (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 10). Errespetua guztiaren gainetik, ezberdintasuna edozein izanda ere, eta hizkuntzen artekoa barne:

Batak bestearen nortasuna eta autonomia ametitzea da elkartasunerako baldintza. Eman dezagun, homosexualitatearekin, mendetan zehar nagusi izan den harreman sexualen sistema gainditzea. Edo emakumeak bere kondizioa pentsatzeko eta gainditzeko ahalmena izatea. Edota nork bere hizkuntza mintzatu ahal izatea. (Sarrionandia 2010: 377-379)

Hizkuntzak direla eta, EAEko gizarteak gaur egun gehien babesten duen ideia multzoa elkarren arteko zein ezberdinen arteko errespetuarena da. Horrela, biztanleria ia osoa dago guztiz edo nahikoa ados errespetuaren isla garbia diren ondoko esaldiekin (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 71):

- Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar da (oso edo nahikoa ados %93).

**Hizkuntza-berdintasuna egi osoa bihur dadin den-denok bi hizkuntza ofizialak jakin beharko genituzke, eta biak gaitasun maila egokian, gainera. Bien lege-estatusak ere maila berekoa beharko lukete izan. Eta abar.**

**Hizkuntzak direla eta, EAEko gizarteak gaur egun gehien babesten duen ideia multzoa elkarren arteko zein ezberdinen arteko errespetuarena da.**



*Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). – Iñaki Martínez de Luna*

**Komunitate bat osatzeko elkarrekiko enpatia eta errespetua dira gakoa. Euskaldunak izan edo erdaldunak izan, denok jarrera asertiboan oinarrituz, beste ezberdin horiek dituzten mugez eta zailtasunez ere jabetu beharko dugu.**

- Bakoitzak du eskubidea zein hizkuntza nahiago duen aukeratzeko, besteak beste aukera ere errespetatuz (%93).
- Saltoki, enpresa eta administrazioan bezeroen nahia errespetatu beharko litzateke euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko (%90).

Baina errespetua ez da muxu-truk gertatzen. Hortaz, berdintasunaren kasuan aipatu dugun zalantza bera dugu errespetuarekin masiboki bat egiten denean: ea jendea jabetzen ote den errespetuz jarduteko ezinbestekoak diren baldintzez. Lehenik eta behin, konturatu behar dugu ezezaguna zai-gunaren aurrean erraza dela aurreiritziak sortzea eta, hortaz, ezberdinengana hurbildu eta hobeto ezagutzeko ahalegina egin beharko genuke denok:

Ez da elkar errekonozitu gabe egiten elkarrekiko bizimodurik. Ezagutu egin behar da errespetatu ahal izateko. (Sarrionandia 2010: 486)

Komunitate bat osatzeko elkarrekiko enpatia eta errespetua dira gakoa. Euskaldunak izan edo erdaldunak izan, denok jarrera asertiboan oinarrituz, beste ezberdin horiek dituzten mugez eta zailtasunez ere jabetu beharko dugu. Erdaldunei zor zaien jarrera enpatikoarekin biztanleriaren zati handia dator bat, EAEn:

Euskaldunek ulertu behar dute pertsona askok ezin dutela euskara ikasi (oso edo nahikoa ados %80). (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 71)

## 5. Aniztasuna

Euskararen elebakartasunetik elebitasunera edo eleaniztasunera desplazatzen ari da euskal herritarren hizkuntzen ipar-orratza, azken hamarkadetan:

Elebitasuna ezinezkoa delako axioma gainditu dela ematen du, hizkuntza aniztasuneko egoeraren abantaila eta zailtasunei begiak itxi beharrik gabe. <Beste hizkuntza> lurperatzeko gogo hori indargabetu egin dela esan daiteke, askatasunaren eta bizikidetasunaren mesedetan. Euskaldunen artean, propioaz gainera, hizkuntza guztiak duin eta laintzat hartzeko joera zabaldu da. (Sarrionandia 2010: 368)

Nazioartean oihartzun handia izan du *hizkuntzen ekologia*, naturatik hartutako metafora hori gizarteak bere eginez, ikuspegi teoriko oso lagungarri suertatu da eleaniztasunaren balioa zabaltzerako.

Litekeena da aniztasuna balio filosofiko gisa guztiz barneratuta ez egoitea, eta onarpena pragmatismoaren izenean gertatu izana. Hizkuntza

ordezkapena ezinezkoa litzateke; hala dirudi gurean behintzat. Gainera, arestian defendatu ditugun ezberdinen arteko bizikidetzaren eta berdintasun asmoak zapuztuko lituzke. Elebakartasunaren hautu antzua horrela marraztu du Xabier Erizek, Joshua Fishmanen testuen aipamena eginez:

“...hizkuntza nagusiaren monismoa hizkuntza menderatuaren monismoaz ordezkatu nahi izatea, aniztasunaren eta bizikidetzaren baketsuaren hil-kanpaiak jotzea litzateke: <This spells the death knell for pluralism and peaceful coexistence> (Fishman, 2001, 475. or.)”. (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 28)

Hala ere, printzipio filosofiko bezala ere, aniztasun kulturalaren eta linguistikoaren ideia ari da bide luzea egiten nazioarte mailan eta, azken urteotan, gurean ere bai. Hizkuntza guztien balioa azpimarratu ohi da gaur egun: *Aniztasuna. Hizkuntzen osasunak adierazten du gizartearena*. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 10)

Eleaniztasuna aipatzean, euskara eta lekuan lekuko erdara ofiziala (gaztelania edo frantsesa) ez ezik, ingelesa ere dugu buruan batez ere. Baina, horiez gain badago aintzat hartu beharreko hizkuntza gehiago ere: gugana bizitzera etorri berri direnek ekarritakoak.

Immigranteek aukera ezberdinak dituzte harrera-gizartearekin izan dezaketen harremani edota loturei dagokienez. Horien gako nagusia da ezberdinen artean zenbateraino lortzen diren elkar ezagutzea eta errespetatzea zein elkarrengana hurbiltzea:

Immigranteak lau jokabide izan ditzake bizi den gizartearekiko. <Asimilazioa>, sorterriko kultura baztertu eta harrera egiten dion gizartearen bete betean sartu. <Integrazioa>, datorreneko kulturari eutsi eta berrian ere parte hartu, bikulturalismoa. <Bereizketa>, harrerako gizartearekin harremanik sortu nahi ez izatea, sorterrikoekin jarraituz. <Marjinazioa>, bai harrera gizarteko bai sorterriko kultura identitatearekiko arbuioa eta distantzia. (Sarrionandia 2010: 486. or.)

Diskurtso berria helburu, integrazioa da hobekien egokitzen den aukera. Eskema horretan errespetatzen dira ezberdinen identitateak eta errazten dira haien arteko elkarbizitza zein berdintasuna. Aniztasunaren ikuspegitik ere, bertako hizkuntzei eta iritsi berriek ekarritakoei lekua egin behar zaie. Baina, herritarren jarrera eta eguneroko jarduna *asimilaziotik* gertuago egon daitezke *integraziotik* baino. Izan ere, ongi ikusia dago etorkinek gure hizkuntzak ikastea eta, Arabarari buruz hurrengo testuak dioskun bezala, beraienak gure begien aurrean ezkutatzea:

---

**Eleaniztasuna aipatzean, euskara eta lekuan lekuko erdara ofiziala ez ezik, ingelesa ere dugu buruan batez ere. Baina, horiez gain badago aintzat hartu beharreko hizkuntza gehiago ere: gugana bizitzera etorri berri direnek ekarritakoak.**

*Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). – Iñaki Martínez de Luna*

Bestelako hizkuntzek, arabartu direnen atzeritarrenak izanik, sentimendu ahulak piztuko dituzte [arabarren] gehiengoarengan; urrutiko hizkuntzak eta etorkin behartsuenak diren aldetik, baliteke axolagabekeriaz edota mesprezuz ikusita egotea ere. (Martinez de Luna 2015: 82)

Baina aniztasunaren balioa ez ezik, badaude beste hizkuntza horien alde egiteko arrazoi gehiago (Martinez de Luna 2015: 83-84):

Lehenengo arrazoa, ondarea da: hizkuntza-aniztasuna, denon aberastasuna edo ondare bezala ulertzeko ahalegina egin behar dugu. (...) Hemen, gure inguruan dugun ondare kulturala da. Bigarren arrazoa, koherentzia: guretzat nahi duguna, denontzat ona da. (...) ...hemendik joandako emigranteek euren hizkuntzari eutsi diotela entzutean pozten garen bezala, gurea etorri direnen hizkuntzak ere ongi babestu eta transmititzen direla jakiteak poztu beharko gintuzke. Hirugarren arrazoa, bizikidetzaren: elkar ezagutzeko, eta elkarri ulertuz eta errespetatuz, elkarrengandik hurbilago sentituko gara; horrela, xenofobiaren arriskua uxatzea errazago izango zaigu; baita ezberdinen arteko elkarbizitza baketsua eta armoniatsua lortzea ere. Azken arrazoa, (...) praktikotasuna: mundu globalizatuan (...), puntako harreman ekonomiko eta komertzial batzuetan lekuan lekuko hizkuntzak ari dira balioesten eta erabiltzen, komunitate jakinetara hurbiltzeko eta jardun ekonomikoaren eraginkortasun maila areagotzeko; (...) ...gure enpresek kanpoan dituzten edo izan litzaketen harremanetan, rol baliotsua bete dezakete egungo arabar batzuen [atzerriko] hizkuntza exotikoek.

Azken buruan eta hemen dugun helburuari begira, hizkuntza horien aitortzak asko erraztuko luke immigranteak ere euskarara bil daitezten.

## 6. Erantzukizuna

Euskara suspertzeko ahaleginetan herri mugimendua eta herri-administrazioa izan dira eragile nagusiak, azken hamarkadetan. Baina herri mugimendu hori ez da dinamika sozial bezala ulertu behar, hasiera batean abiapuntua hori bazen ere. Azken-azken hamarkadetan, euskalgintza soziala eta instituzionala izan dira benetako eragileak, herritarrrak nolabait ordezkatzuz; sektore espezializatuak, ez herritar arruntak. Baina, euskarak aurrera egingo badu osasuntsu, herritar guztion babesa eta bulkada behar ditu:

Gizarte eleaniztun baten barnean euskara biziberritzea gizarte osoaren helburu kolektiboa da, eta, beraz, herritar guztion, zeinahi delarik ere norberaren ideologia edo jarrera politikoa. Hortaz, ikuspegi honetatik, helburu nazionala da. (Euskararen Aholku Batzordea 2009: 57-58)

Alde batetik, esan dezakegu ondare kolektiboan ondorengoei helaraztea erantzukizun partekatua eta *unibertsala* dela: *Erantzukizuna. Denoi dagokigu jaso duguna geroratzea*. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 10) Beste aldetik, hizkuntza-biziberritzeak komunitateko kideen inplikazioa behar du, ez soilik abangoardia osatzen duten militante eta erakundeena. Alegia, hizkuntzaren etorkizuna zehar-lerroko eta guztion kontua da, ez euskara elkarreana eta erakundeen hizkuntza-politikarako zerbitzuena:

Erantzukizuna (hizkuntza-komunitatearen izateko gogoia): Euskaldungoa hazten joatea eta behar bezala antolatzea da, oro har, prozesuaren eta emaitzaren zimentarri nagusia. Erantzukizun hori ezin zaie delegatu ordezkari politikoei, zeinahi dela ere agintean dagoena. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 12)

Diskurtso koherente eta eraginkor bat sortzeko, protagonista nagusiak guk izan beharko dugu: euskalgintzako kideekin hasita, euskararen komunitatearekin jarraituz eta, ondoren, gizartearen gehiengora zabalduz:

Arazoa duen jende horrek bere burua antolatu eta bere eskakizunak aurkezten ez baditu, nork egingo du? Jende horrek ezin du jasaten duen indarkeria sinbolikoa eta madarikazioa logika historiko eta unibertsalaren arabera kotzatu hartu, ez ezinbestekotzat. (...)

Bakoitzak bere burua altxatu behar du. Kolektibo horrek bere burua ezagutu behar (...)

Hori liberazioa da dagoeneko, determinismoan beste bide bat proposatuz indeterminazioa sortzen delako. (Sarrionandia 2010: 495)

Nago, hala ere, gizartea —euskaltzaleok barne— ez dela jabetu hizkuntzak berezkoa duen dimentsio sozialaz eta, hortaz, ezta bere esku-hartzearen beharraz ere. Ardura euskalgintza sozial eta instituzionalaren gain uzten da, gaiari pentsatu bat eman gabe. Euskara zeregin sozial bihurtu eta egunerokoan txertatu beharra dago. Erantzukizuna denok partekatu.

## 7. Justizia

Justizia hizpide, aukera bat da gertaera historikoen pasarteak gogora ekarri eta orduko kalteak erreparatzeko ondorioak ateratzea: *Justizia. Kendu egin ziguten, bidezkoa da orain itzultzea*. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 10)

Aipatu berri den euskararen inguruko konpromiso *unibertsal* horretarako boluntarismoa -gehiengo zabal baten borondatea- ez ezik, lege-

---

**Hizkuntza-biziberritzeak komunitateko kideen inplikazioa behar du, ez soilik abangoardia osatzen duten militante eta erakundeena.**

*Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). – Iñaki Martínez de Luna*

**Justizia hizpide,  
aukera bat da  
gertaera  
historikoen  
pasarteak gogora  
ekarri eta orduko  
kalteak  
erreparatzeko  
ondorioak  
ateratzea:  
Justizia.**

marko egokia ere bermatu beharko da. Argi izan behar dugu, hala ere, legeak ez du zertan justiziaren baliokide izan. Eta euskararako diskurtso berria eraikitzeko asmoz, legeak justiziaren adierazpide izan beharko du, azken horren definizio formalak jasotzen duen bezala. Horrela dio Harluxet Hiztegiak justizia kontzeptuaz dituen lehenbiziko bi adieretan:

1. Zuzentasuna. 2. Aro jakin batean komunitate batek oinarritzat hartzen dituen eta guztien ongizatea lortzeko aplikatzen diren printzipioen multzoa. (Harluxet Hiztegia)

Justiziaren formulazio horrekin, bizikidetzarako ezinbestekotzat jotzen diren beste balio batzuk ere jaso beharko ditu legeak:

Lege-babesa ezinbestekoa da eskubide terminotan hitz egiteko, berdintasuna, justizia eta errespetua —eta beraz bizikidetzeta— nahi badira. (Euskaltzaleen Topagunea 2015: 9)

## HIZKUNTZA-MERKATUA

I  
Arestian deskribatu eta defendatu ditugun hainbat osagai interesgarriak eta beharrezkoak izan daitezke euskararen aldeko diskurtso koherente baterako. Ideia horiek balio izango dute euskararen hesiak bi modutan gainditzeko: batetik, historikoki eta gaur egun arte pairatu diren baldintza injustuak (debekuen garaietatik egungo estatus gutxituraino) gainditzeko; bestetik, bere ohiko komunitatea sektore berrietara hedatzeko. Garrantzitsuak lirateke lorpen horiek, baina inolaz ere nahikoa.

Izan ere, zalantza berri bat pizten zaigu: *Nori interesatzen zaio halako diskurtsoz osatuta aurkezten den hizkuntza bat?* Bestela esanda, merkatu azterketan hain oinarritzkoa den formulazioaren bidez: *Zergatik “erosi” behar dute euskal herritarrek euskara?* Edo, beste era batera esanda: *Zerk bultzatuko lituzke egungo elebidunak euskara erabiltzera? Zerk erdaldunak ikastera?*

Diskurtso berriak, koherentea ez ezik, eraginkorra ere izan behar du. Hortik dator beste galdera bat: *Zein da euskararen balioa hizkuntzen merkatuan?*

Pierre Bourdieu soziologoak *hizkuntza-merkatu* kontzeptua sortu zuen eta “geroztik hizkuntza-merkatua nozio hori ukipenean diren hizkuntzei eta hizkuntza-hautaketari hedatu zaie (Boyer, 2001 eta Calvet, 2002, adibidez)”. (Coyos Etxebarne 2010: 170)

Diskurtsorako aipatu den osagaietako bat, identitatea, bete-betean sartzen da merkatuko balio bezala herritar askorentzat, baina oso ahula da beste batzuentzat. Beste herrialde bateko kide sentitu eta bertan bizi den batentzat, euskarak ez du balio identitario sakonik izango. Uler dezake ondare kultural gisa eta onar dezake aniztasunaren izenean, baina horiek ez dira nahikoa izango euskara bere egin dezan.

Hizkuntzaren bestelako balio erantsiak ikuspegi ekonomikotik —lanerako abantaila gisa, adibidez— uler litezke. Baita estetikatik, “glamour”-etik, ludikotasunetik edota integraziotik ere:

Hizkuntza-merkatua hizkuntzen arteko balio-sistema da, hizkuntzen erabiltzeko beharren arabera egituratzen dena. (...) Bi balio-mota ditugu. Batetik, balio estetikoak, prestigiodun hizkuntzek, zibilizazio “handietako” hizkuntzek dutena; bestetik, balio praktikoa, laneko hizkuntzak edo enplegua eskuratzeko hizkuntzak, zientzia-hizkuntzak, etorkinentzako integrazio hizkuntzak, etab. Hizkuntza batzuen ezagutzak gainbalioa ekartzen du; beste batzuenak, berriz, ez du ondoririk. (Coyos Etxebarne 2010: 171)

Euskararen balio pragmatikoaren ideia lekua ari da irabazten EAEko gizartean, hurrengo esaldiek (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 76) eskuratzen duten adostasun zabalak erakusten digun bezala:

- *Gaur egun, euskaraz jakiteak aukera gehiago ematen dizkio pertsona bati (oso edo nahikoa ados %86).*
- *Euskara jakiteak laguntzen du hemengo gizartean eta kulturaren integratua egoten (%79).*
- *Euskara gero eta beharrezkoagoa da lana eskuratzeko (%76).*

Euskarak badu balio pragmatikoa gurera iritsi berri direnen artean ere; etorkinen artean:

Euskara apur bat ikasteko ahalegina euskarak berak ordaintzen duela esan zuen, amazig horrek, Bilbon. Inguruko jende asko hobeto ezagutzen dela horrela. (...): “Soilik adierazi nahi dizuet euskara ikastea giltza dela, eta giltza horrek ateak zabalduko dizkizuela bizitzak eskaintzen dituen beste aukera batez gozatzeko.” (Sarrionandia 2010: 487)

Izan ere, ezagutza —eta ez erabilera— da euskarak duen balio pragmatikoaren funtsa. Hasieran ikusten genuen bezala, euskararen komunitatea hiztunak behar ditu, baina lan-munduak ez du praxi hori sarri eskatzen oraindik, eta hizkuntzaren balio pragmatikoa ezagutzen agortzen da.

---

***Diskurtsorako aipatu den osagaietako bat, identitatea, bete-betean sartzen da merkatuko balio bezala herritar askorentzat, baina oso ahula da beste batzuentzat.***

*Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). – Iñaki Martínez de Luna*

Aipatutako hori guztia bada garrantzitsua euskararen merkatu-balioari begira, baina ez nahikoa.

## MARKA-IZENA ETA IRUDIA

I  
Lerro batzuk gorago Coyos Etxebarnek balio erantsi bat aipatu digu “balio estetikoa, prestigidun hizkuntzek, zibilizazio “handietako” hizkuntzek dutena”. Hiztun komunitatearen dimentsioa dela medio, argi dago euskara ez dela kategoria horretan kokatzen. Badago, ordea, beste aukera bat euskararen merkatu balioa areagotzeko: marka-izen eta irudiarena. Izan ere, kontsumo merkatu orokorrean, produktuaren ezaugarri objektiboak bezain garrantzitsuak dira hain subjektiboak diren marka-izena eta produktuaren irudia.

Jarraian jasotzen dira Euskal Herriko hainbat adituk -200 bat pertsonen-, euskararen inertzia eta jokaera zaharren aurrean, proposatu dituzten diskurtso eta jarrera berri baterako gako-ideien zerrenda (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 110-121):

- Diskurtsoaren despolitizazioa bilatu.
- Aldeko aldarria egokitu eta malgutu.
- Limurtzearen bidea landu.
- Euskara bestelako bizipenekin lotu, eremu formaletik haratago.
- Euskara balio positiboekin lotu.
- Euskararen irudia modernizatu.
- Euskararen zuzentasunaren exigentziak orekatu.

Lehenengo biak -despolitizazioa eta aldarria egokitzea- badaude jasota diskurtso koherentea osatzeko asmoz arestian aipatu diren puntuetan. Hurrengo bostak, aldiz, lotuago daude euskararen hautemate ludiko, erakargarri eta estetikoarekin, planteamendu filosofiko eta pragmatiko sakonekin baino; alegia, hizkuntza-merkaturako euskarari egoki gertatuko litzaizkiokeen marka-izenarekin eta irudiarekin.

Tankera horretako ezaugarri batzuk oso lagungarriak lirateke ere euskararen merkatu-balioa areagotzeko. Hala nola, estetika, glamour-a, irudi ludikoa eta abar. Baina, egun, halakoak urriak eta ez oso zabalduak dira oraindik. Datu gehiagorik ezean, prestigioaren inguruko erreferentzia batekin konformatu beharko dugu, eta irudi horrekin euskara lotzen duena erdia inguru baino ez da. (Euskararen Aholku Batzordea 2016: 76):

- *Gaur egun, euskaraz jakiteak prestigio gehiago ematen dio pertsona bati (%47).*

Beraz, prestigioa ez da erabatekoa; ezta hurrik eman ere. Euskara, oro har ongi ikusia eta estimatua den arren, ez da liluragarri gizartearen begietan. Bestela esanda, onarpen pasiboa hedatua dagoen arren, aldekotasun hori ahula izango da ez dakitenek ikas dezaten edo dakitenek erabil dezaten. Pertzepzio hori arriskutsua izan daiteke aurrera begira, komunitate bateko hizkuntza-merkatuaren ezaugarriek hizkuntza-hautua baldintzatu eta bideratzeko duten indarra dela medio:

Calveten ustez, hiztunek edo hizkuntza-komunitateek merkatuko legeari jarraitzen diote. Zenbaiten beren hizkuntza uzten dute, ez diete haurrei transmititzen. Ez da ganibeta eztarrian dutelako, baina bai beren interesa hor dela uste dutelako, edo beraien haurrena (...).

Portaera, kasu honetan hizkuntza-hautaketa, hiztunen eta hizkuntza-komunitateen irudikapen linguistikoetan eta gizarte-erlazioen analisi intuitiboetan oinarritzen da. (Coyos Etxebarne 2010: 171)

Hizkuntza baten gizarte baldintza objektiboak zein hauteman subjektiboak harremanetan daude hizkuntzek merkatuan duten balioekin. Horiek guztiak eragiten dute hiztunen hizkuntza-portaeran. Horregatik, ahalegin bat egin behar dugu euskara merkatu-balio berri eta osagarri janzten.

## GU GEU, DISKURTSO-SALTZAILE

*Erantzukizunari eskaini diogun azpi-atalean esaten genuen protagonista nagusiak guk izan beharko dugula: euskalgintzako kideekin hasita, euskararen komunitatearekin jarraituz eta, ondoren, gizartearen gehiengora zabalduz.*

Horretarako, lehenbiziko pausoa da egoera makurraz jabetzea: *“Identitate kolektibo ukatuetako jendeak madarikazio hori naturalizat hartzea ez da batere naturala.”* (Sarrionandia 2010: 495) Euskaldunok, euskararen egoera makurraz kontzientzia izanda ere, besteak egin ohi ditugu horren erantzule: estatu zapaltzaileak, alderdi politiko batzuen eta erakundearen ardura falta, eta abar.

Kanpokoei leporatze horiek oinarria duten arren, euskaldunok kontzientzia lausotua dugu geure portaera propioaz. Siadecok Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearentzat egindako ikerlan batean zioen bezala: *“Euskararekiko motibazio afektiboaren eta motibazio efektiboaren arteko desoreka.”* Badira lan horretan egoeraren gaineko gure irakurketa miopearen berri ematen duten beste ondorio batzuk ere (Siadeco-AED, 2010: 63):

**Hizkuntza baten  
gizarte baldintza  
objektiboak zein  
hauteman  
subjektiboak  
harremanetan  
daude hizkuntzek  
merkatuan duten  
balioekin. Horiek  
guztiak eragiten  
dute hiztunen  
hizkuntza-  
portaeran.  
Horregatik,  
ahalegin bat egin  
behar dugu  
euskara merkatu-  
balio berri eta  
osagarri  
janzten.**



**Ez gara konturatzen bigarren mailako hizkuntzatzat jotzen dugula euskara, eguneroko jardunean. Gainera, ikusi dugunez, euskararen erabilerak ez omen digu prestigio askorik ematen. Horren guztiaren ondorioz, gure arteko asko erosoago sentitzen da erdaraz.**

*Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). – Iñaki Martínez de Luna*

- Euskararen ikasketa prozesua, prozesu jarraitua den kontzientziarik ez dago.
- Euskara hobetzeko egin behar den ahaleginaz ez dira jabetu euskara “esfortzurik gabe” ikasi duten elebidunek.
- Erabilerak duen garrantziaren inguruko kontzientzia praktikoa falta da.

Ez gara konturatzen bigarren mailako hizkuntzatzat jotzen dugula euskara, eguneroko jardunean. Gainera, ikusi dugunez, euskararen erabilerak ez omen digu prestigio askorik ematen. Horren guztiaren ondorioz, gure arteko asko erosoago sentitzen da erdaraz, batere kezkarik gabe.

Egoeraren injustiziaz jabetuz gero, hiru modutan erantzun dezakegu: agresiboan, asertiboan edo pasiboan. Asertiboa, besteak erasotu gabe eta besteekiko menpekotasunik gabe jardutean datza. Horrek eskatzen du nork bere buruaz konfiantza sendoa izatea eta ideiak irmo defendatzea, baina besteekiko errespetua gordez.

Hari horretatik tira eginez, saio honen azken galdera: *Euskaldunen kontzientzia desitxuratu hori ote da abiapunturik egokiena diskurtso multzo koherentea eraiki eta gizarteratu ahal izateko?* ●

## REFERENCIAS

- Amonarriz, K. (2015). *Hala Bedi Bat* [irratia], Magazina. (Urr 19, 2015).
- Alén Garabato, C. eta Kis-Marck, A. (2015). Le concept de « communauté linguistique » face à la réalité du terrain, *Lengas* [En ligne], 77 | 2015, mis en ligne le 15 juin 2015, consulté le 28 décembre 2015. <http://lengas.revues.org/866> (azken kontsulta: 2015-12-28).
- Bourdieu, P. (1985). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madril. Akal.
- Coyos Etxebarne, J-B. (2010). Hizkuntza-ukipena. In Arkaitz Zarraga et al.: *Soziolinguistika Eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritzza. Andoain, Vitoria-Gasteiz.
- Euskaltzaleen Topagunea (2015). Berrikasi eta berrikusi. Euskararen azken mende erdiaren errepeaso, irakurketa horretatik etorkizuna ondorioztatzeko. *Topaberri* 66 (2-11). <http://topagunea.eus/2015/06/topaberri-66-berrikasi-eta-berrikusi/> (azken kontsulta: 2015-12-26).
- Euskararen Aholku Batzordea. (2009). *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun berri baterantz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu\\_2447/adjuntos/euskara21.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/euskara21.pdf) ) (azken kontsulta: 2015-12-26).

- Euskararen Aholku Batzordea. (2016). *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa. EGOD egitasmoa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa 2011*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Fishman, J. (Ed.). (2001). *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: a 21st Century Perspective*. Clevedon (EB): Multilingual Matters.
- Giddens, A. (1995 [1984]). *Bases para la teoría de la estructuración*. Buenos Aires. Amorrortu.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2015). *Plan Estrategikoa 2015-2019*. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia. (azken kontsulta: 2016-05-01) <http://www.gipuzkoa.eus/documents/414916/432931/Plan+Estrategikoa+eusker/a/ebddf3f-f3e5-4200-90a9-3f728aea1ad1>
- Harluxet Hiztegia: *Justizia*. <http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=justizia> (azken kontsulta: 2016-01-06).
- Lakoff, G. (2007). *No pienses en un elefante. Lenguaje y debate político*. Madril: Editorial Complutense.
- Martínez de Luna, I. (2013). Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 86 (13-83).
- Martínez de Luna, I. (2015). *Arabako hizkuntzak eta hitzunak mundu eleantzean*. Vitoria-Gasteiz. Arabako Foru Aldundia.
- Mendez Ferriz, X. L. (2015). BERRIA, 2015-08-30
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean?*. Iruña. Pamiela.
- Sarrionandia, J. (2015). *Lapur banden etika ala politika*. Iruña. Pamiela.
- Siadeco-AED (2010). *Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa*. (ikerlanaren txostena, argitara gabe).
- van Dijk, T. A. (2000a). El discurso como interacción en la sociedad. In Teun A. van Dijk (konp.): *El discurso como interacción social*. Barcelona: Gedisa (19-66).
- van Dijk, T. A. (2000b). El estudio del discurso. In Teun A. van Dijk (konp.): *El discurso como estructura y proceso*. Barcelona: Gedisa. (21-65).
- Warren, Jane & Oaks, Leigh (2011). Language Policy and Citizenship in Quebec: French as a force for Unity in a Diverse Society? Catrin Norrby & John Hajek (Eds.): *Uniformity and diversity in language policy*. Global Perspectives. Bristol / Buffalo / Toronto. Multilingual Matters (7-21).
- Wikipedia (2015). Gurutzadak. (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Gurutzadak> [azken kontsulta: 2015-12-26])